



DEBANATURA:

INGURUMEN HEZIKETARAKO PROIEKTUA

Iraia AGIRREZABALA
Diego MENDOZA



DebaNatura Elkarteak, Debako Kultur Elkarteak eta Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin, ingurumen heziketarako proiektu bat aurrera eramane nahi du.

DebaNaturaren asmo nagusienetako bat ondorengo helburuak betetzen dituen programa baten bidez, aisialdia eta ingurumen hezkuntza konbinatzen dituen ekintzak eskaini eta aurrera eramatea da:

- Euskal Herriko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta, Ingurumen Heziketarako jarduerak desberdinak aurrera eramatea, hauen ikasketetan laguntzeko asmoz.
- Heziketa programa eta bisita gidatuen bitartez, ikasle eta bisitariak ingurumena hurbilaztea. Honetaz gainera, Deba inguruko ondare naturala eta kulturala ezagutarazi nahi dira.
- Deba inguruko itsasbazterrak eta barnealdeak dituen ekosistema ezberdinen berri ematea, beraien ezaugarri biologiko eta geologiko nabarmekin batera.
- Gure itsas bazterrari eta Debako beste gune naturalei buruzko informazioa ematea partehartzaileei, hauei buruzko ezagutzak handitzeko.

- Itsasbazterreko eta barnealdeko guneen erabilera eta gozamen onuragarriak bultzatzea, partehartzaileek honi buruz duten balorea handitzeko.

Bisitak izango ditugun talde edo kolektiboan arabera, programa hezitzaile eta didaktiko espezifikoak egingo dira, beti ere zenbait helburu hezitzaile, kultural eta aisialdiak beteaz.

DebaNaturaren ekimena natur eta kultur baliabideekin eginiko lan zuzenean oinarritzen da. Aisialdia eta heziketa uztartzen dira, eskolatik eta bertako monotoniatik at egotearen freskotasunarekin eta metodologia partehartzailearen bidez, adin eta ezaugarri desberdinetara ondo moldatzeaz arduratzen da. Jarduerak aurrera eramateko erabiliko den metodologia, beraz, "beste era batera ikasteko" pentsatuta dago.

Hau guztia lortzeko, bi adar nagusitan banatzen da DebaNaturaren Ingurumen Heziketarako proiektu orokorra:

1. Debako Interpretazio gela.
2. Debarrenako Ingurumen, Ondare eta Auzolanaren proiektu pilotoa



DEBAKO INTERPRETAZIO GELA

Deban Interpretazio Gela bat sortzea pentsatu dugu bi debar gaztek, Deba eta bere inguruan dagoen ondare kulturala eta naturala ezagutarazteko eta merezi duen balioa emateko.

Horrela, proiektua **Debako Kultur Elkarteari** aurkeztu ondoren, eta hauen erabateko adostasuna jaso ondoren, leku ezin aproposagoa iruditu zaigu bertako istalakuntzak helburu honetarako erabiliz. Proposamen honi esker, aspaldidanik mugimendurik gabe zegoen eraikinari bizia ematea ahalbideratuko da. Gaitera, **Aranzadi Zientzia Elkartearen** laguntza ere izan dugu proiekuaren lehenengo pausoak eman ahal izateko; besteak beste, unibertsitateko ikasleekin uda honetan ingurumen praktikak. DebaNatura datorren ikasturteari begira ere, Aranzadiren bitartez, ikasle eta gazteengan ingurumen heziketa aurrera eramateko pausoak ematen hasia da.

- **DebaNatura Interpretazio Gela** izango dena, aire librean egongo den natur museotzat jo liteke euskal kostaldean duen kokapen pribilegiatua dela eta. Natur eszenatoki honek, txoko eta natur gunek paregabeak ditu. Horrela, etorkizuneko gizarte jasangarri baterantz joan ahal izateko, gure etorkizuneko helduak hezteko baldintza egokiak biltzen dira. Interpretazio Gela honetan, gaur egungo Ingurumen Heziketarako eredurako egokiak diren eduki eta metodologiak osaturiko proiektuak aurrera eram nahi dira.

Istaiakuntza hauetan, DebaNaturak Debako aberastasun naturala erakusteko heziketa eta sentsibilizazio lanak gauzatu nahi ditu.

Debako inguruak, paisaiaren, naturaren eta geologiaren aldetik Europako altxorrik garrantzitsuenetako bat den itsas-ertzeko zabalgunea eta kostako itsaslabarrak bisitatzeke aukera ematen du. Balio honi esker, kostaldeko gunek hau naturgune babestuzat hartu da, Biotopo izenpean.

Deba eta Zumaia arteko kostaldeko itsaslabar ikusgarriak dira munduko geologi-santutegirik garrantzitsu eta ezagunenetakoak. Flysh-eko geruza horiek osatzen dituzten harriak agerian utzi dizkigute Lurraren historia geologikoren 50 milioi urte.

Bere ingurumena eta kokapen geografikoa dela eta, Interpretazio Gelak Ingurumen Heziketarako apustua egingen du, Debabarreneko natur eta kultur ondareaz gozatzeko eta hau hobeto ulertzeko aukera eskainiz: itsasertzeko zabalgunea (kostako plataforma harritsu), itsas labarrak (Flysch-a), Europako fosilen aztarnategi garrantzitsuenak, Deba ibaiaren estuarioa eta padurak, artadi kantauriarra, etab.

- **Kurrikuluarekin lotura:**

Gure unitate didaktikoek lotura kurrikularra dute gaur egungo hezkuntza programarekin eta material jakinaren laguntzaz garatzen ditugu. Jarduerak elkarren artean osagarriak dira, talde berak jarduera desberdinetan parte har baitezake, ezaguerak eta esperientziak zabalduz.

- **Non gaude?**

DebaNatura Interpretazio Gela, euskal kostaldeko natur inguru ezin hobean kokatzen da. Bere egoitza Debako hiribilduan aurkitzen da, aipagarri den 1927.eko "neovasco" estiloko eraikuntzan (**Debako Kultur Elkartea**, J.M. Ostolaza kalea, 12 • DEBA, Gipuzkoa).

DebaNatura Ingurumen Gelak, kultur eta ingurumen heziketarako beharrezko azpiegiturak edukiko lituzke, hala nola:

- Harrera-leku
- Taller-Gela
- Ikus entzutezko aretoa
- Erakustearetoa
- Artxibo-Liburutegia
- Naturgaia eta Kulturgaia Erakusketa

Erakusketa hauek Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean gauzatuko lirateke.



• Landuko lirateken gaiak eta edukinak:

- Itsasaldi rasa eta bere ingurua ezagutu eta ikas-
tea. Ezaugarri biologikoak (landare eta animaliak),
geologikoak (flyscha, labarrak, fosilak...).
- Nola sortu zen, garapena eta egungo egoera.
- Euskal itsasbazterra ezagutu. Dituena ekosistema
ugariak eta beraien ezaugarri garrantzitsuenak.
- Gizakiaren eragina itsas ingurunean eta ondo-
rioak. Gure itsasertzaren zainketaren egoera, arris-
kuak eta eraginak.

Ikasleei zuzenduriko jardueren mamia, hezkuntza
aldietako atal bakoitzeko zeharkako material bezala, erraz
lotu ahal izango da. Horregatik, kontzeptuak, aurre-ideiak
eta baloreak landu daitezzen, eskolan bertan sarrera/moti-
bazio bezala gauzatuko diren jarduerak proposatzen dira.
Miaketa lanak, ikerketak, informazioa, gero itsasertzeko
irteera gidatuan landuko diren gaien inguruan eta irteera-
ren ondoren laburpen lan bat, gai hauetan eta egindako
ekintzetan sakontzeko eta ondorio nagusi batzuk atera
ahal izateko.

Hau lortzeko unitate didaktiko eta tailer desberdinak
gauzatzen ari gara inguru honekin erlazioa duten hainbat
gaien inguruan. Gai hauek, gainera, bai Deban eta baita
Lasturren ere landu nahi dira. Besteak beste, uraren taile-
rra, kostaldea ezagutu eta aztertzeko tailerrak, artadi kan-

tauriarra eta bertako basoak ezagutarazteko tailerrak, ber-
tako eta inguruko ondare kulturalaz ohartzekoak, etab.
izango dira laster aurrera eraman nahi liratekeen tailer-
tako batzuk.

Jarduera hauen artean, egun osoko irteerak ere egon-
go lirateke Deba eta inguruko gune desberdinetara: kos-
taldea, estuarioa eta padurak, etab., adinaren arabera
egokitutakoak izango liratekeelarik. Tailer hauen progra-
mazioa honakoa litzateke:

1. Proiekzio bidez, ingurumenera hurbilketa teori-
koa eta aurkezpena.
2. Egokitutako ibilbide didaktiko batean, inguruaren
ezagutza, behaketa eta laginen batzea.
3. Fitxa didaktikoen bitartez, behatutakoari buruzko
ingurumen tailerrak.

**DEBABARRENKO INGURUMEN, ONDARE
ETA AUZOLANAREN PROIEKTU PILOTOA**

Besletik, DebaNaturako ingurumen hezitzaileek eta
Zehar Elkarteko (Gaztelekuko) gizarte hezitzaileek elkar-
lanean, Debako gazteak parte-hartze programa berezi
batean protagonistak izan daitezzen, proiektu piloto bat
aurkeztu dugu Debako Udalean. Hau dela eta, **Udalaren
laguntzaz**, Ingurumen heziketa eta kontzientziazio proiektu
bat aurrera eramatea posiblea izango da.



Dueña gutxi Sasiola inguruan Debako Gaztelekuarekin egindako akanpaldia. Uztailaren 19, 20 eta 21an.

Gaur egun Ingurumen Heziketak gizarteak jarrera onak sustatzeko eta garapen jasangarria eta orekatua lortu ahal izateko duen garrantzia ikusita, DebaNaturak eta Zeharrek natura eta kulturaren heziketa eta kontzientziazioa bultzatzea nahi dugu proiektu honen bidez, horretarako, arlo desberdinetako hainbat jarduera gauzatu nahi ditugularik.

Horrela, herriko gazteak heziltzea izango da proiektu honen helburu nagusia, gazteak baitira etorkizuneko eredu. Hala ere, esan beharra dago herritar orori zabalduko zaiola urtean zehar egingo diren jardueretan parte hartzeko aukera eta gazteek ikusi eta ikasitakoa ere herri guztira zabaltzen saiatuko gara.

Proiektu honen asmoa, Deba eta bere inguruak oraingo gordetzen duen ondare natural eta kulturalaren ezagugarri berreskurapena Deba Barreneko gazteen partaidetasun zuzenarekin lortzea litzateke, faktore ludiko eta ingurumen hezkuntza konbinatzen dituzten ekimenak garatuz. Ondorengo helburuak beteko lituzken egitaraua jarraituko litzateke:

- Gure inguruko interes natural, historiko eta etnografikoko aztarnategi eta puntu desberdinak ezagutzera eman.

- Debako ondare kultural eta naturala hedatzen lagundu.
- Deba herriak duen ondasun naturalari buruzko informazioa ematea, gaiaren inguruan parte hartzaileek duten ezagutza areagotzeko asmoz.
- Aisialdi eta natur guneen erabilera eta gozamen onuragarriak bultzatzea, partehartzaileek berari buruz duten balorea handitzeko.

Proiektu pilototoa ahalik eta egokien gara dadin, uztailan frogatutako gisa akanpaldi bat antolatu dugu. Bertan, inguruko natur eta kultur ondareak era zuzen eta parte-hartzaile batean gauzatzeko jarduera desberdinak burutuko ditugu. Horrela, irteera honen ebaluazioari esker, aurrerago egingo diren ekintzak hobetzea nahiko genuke.

Gaur egunean ingurumenak duen garrantzia kontuan hartuta eta proiektu eta ekintza hauek aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa zaigu herri osoaren parte-hartzea eta babesa. Era berean, orain arte egindako pausoak eman ahal izateko ezinbestekoak izan zaigu Debako elkarte eta erakundeekin laguntza; hala nola, Debako Kultur Elkarte, Aranzadi Zientzia Elkarte, Zehar Elkarte, Debako Udala, Akerzulo Espeleologia Taldea, bereziki Sindika baserriko Pedro, berari esker ez zaigulako erori Sasiolako Komentua, etab.